

Gaztainondoaren dilema

Gaur egun ere, zenbait jabe saiatzen dira espezie hau berreskuratzen, baina tinta, txankroa eta gaztainondoaren liztorra jasaten duten landareak lortzeko ezintasunak errealitate latza marrazten du gure "zuhaitzik preziatuenetako batentzat"

"Aitak esaten zidana da gaztainondoak gaixotzen ari zirela gaztaroan. Eta esaten dute beren belaunaldiak ez, baina beren gurasoek, XIX. mendearen amaieran, mota desberdinetako zortzi izenetatik izendatzen zituztela. Eta batzuk lehenago hasten zirela fruituak ematen, eta beste batzuk geroago. Imajina dezagun zenbaterainoko hedadura zuen gaztainondoak gure eguneroko bizitzan, hamar bat azpiespeziatan ere identifikatzen genituela", dio Jone Maiozek, GEBE-ko zuzendariak.

Gaur egun, errealitatea oso bestelakoa da, eta Gipuzkoan gaztainondoaren presentzia eskasa da, nahiz eta espezie hori berreskuratzen saiatzen ari diren hainbat jabe ditugun.

Gaztainondoek garrantzi handia izan dute mendeetan zehar euskal familia askoren ekonomian. Jakina da zuhaitz horrek jateko fruitua eta baserrietarako egurra ematen zizkigula eta landa-eremuko Euskadiko espezierik hedatuenetako bat izan zela. Baina 1900. urte inguruan gainbehera hasi zen. Bi onddok eman zioten amaiera gaztainondoa espezie produktibo izateari.

Herrialdeko gaztainondoa (*Castanea sativa* Mill.) zigortzen eta hiltzen duten agente fungikoak tinta (*Phytophthora* sp.), lehenik eta behin zuhaitz horiei eragin ziena, eta handik gutxira, txankroa (*Endothia parasitica*) dira.

Azken urteotan zuhaitz erresistenteak lortzeko Galizian bereziki eta Nafarroan egindako ekimenek ez dute emaitza onik eman, eta horrek etsitzera bultzatu ditu jabeak. Zuhaitz hauei eragiten dioten gaitzei irtenbidea aurkituko balitzaie, aldiz, gaztainondoa aukera ona litzateke gure mendi eta basoak birlandatzeko.

Baina zer dira gaitz horiek eta nola eragiten diote gaztainondoari? Ezinezkoa al da arrakasta izatea? Jone Maioz Gipuzkoako Baso Elkarteko zuzendariaren esanetan, Gipuzkoan errealitatea burugogorra da, eta Galizian, Leonen edo Nafarroan baino lehenago eman dugu amore, "agian gaixotasun horiek lehenago iritsi zitzaizkigulako".

- Tinta: "tinta beltz bat da, begi hutsez hautematen dena. Zuhaitzak tinta beltza zornatzen duela dirudi. Txankroa, berriz, tumore moduko bat, azalore bat bezalako koxkorra ateratzen zaio zuhaitzari. Minbizia bezala da. Biak begi hutsez ikusten dira eta biek zuhaitza hiltzen dute. Lehenik zuhaitza kaltetzen dute eta azkenik hil egiten dute", azaldu du Maiozek.

GEBEko zuzendariak adierazi duenez, zenbait tokitan gaztainondo osasuntsu batzuk geratzen dira, baina horiek dira salbuespena, eta normalean gaztainadi gehienak ez dira 10 edo 15 urtetik gora iristen gaixotu gabe. Tinta, gaztainondo batean sartzen denean, azkenean zuhaitz guztietara zabaltzen da sustraiak hazi eta elkar ukitzen hasten direnean. Ondoko zuhaitzak infektatu egingo dira. Txankroa, aldiz, zuhaitzei azaletik sartzen zaie", azaldu du.

Horri guztiari beste arazo bat gehitu zitzaion 2012an: "urte horretatik aurrera gaztainondo basatiek Txinatik zetorren izurri berri baten eraso jasan baitzuten, gaztainondoaren liztorra (Dryocosmus kuriphilus). Bere larbek fruituaren ekoizpenean eragiten dute eta zuhaitza txankroz infektatzeko aukera handitzen dute. Ekaitz perfektua da", dio Maiozek.

- Zuhaitz batzuk ez dira gai enbor-oin edo anduiatik beste zuhaitz berria emateko, nahiz eta baduten horretarako gaitasuna. Mendian dauden andui asko berriro etortzen dira, baina 8-10 urterekin lehortzen hasten dira eta ez dira aurrera ateratzen. "15 urte bete baino lehen lehortu egiten dira".

Hau da, "gaztainondoaren aldeko apustu hori egin behar duen jabeak, bilatu behar du ondoarekiko erresistentea izateaz gain, liztorrarekiko erresistentea den zuhaitza". Maiozek onartu du gaur egun ere "jabe bat baino gehiago etortzen dela elkartera kapritxoa duelako eta saiatu nahi delako, baina nire gomendioa da ez jartzea, edo egiten badu, gaztainondoak soilik ez jartzea. Hau da, gutxienez bi gauza landa ditzaten esaten diet".

OHARRA: Gaztainondoaren inguruko analisi sakona irakur dezakezu Nafarroako Foresna elkarteak 2019ko abenduan, Navarra Forestal aldizkariko 45. alean, argitaratutako erreportajearen (34-38. or.). Hona hemen esteka:

https://www.foresna.org/wp-content/uploads/navarra_forestal_45.pdf